

JINER PROIEKTUA (DIRU ITURRIAK)

Gure diru sarrerak publizitatearen bidez eta gure produktua erosiko duten supermerkatuen bidez lortuko ditugu. Publizitatea saltokian bertan egingo da: gutako bat, saltokian egongo da panfletoak banatzen erosle guztiei non orgaren ezaugarriak agertuko diren eta honek dituen abantailak azalduko diren. Horretaz aparte, autobusetako markesinetan ere kartelak itsatsiko ditugu autobusa baita jende ugari hartzen duen garraioa.

Horrez gain, mailegu bat eskatuko diogu BBVA-ko bankuari, 10.000€, proiektua garatu dezagun eta daukagun aurrezkiekin konpletatuko dugu. Gainera *crowdfunding* kanpaina bat eramango dugu aurrera enpresaren sorkuntzan laguntzeko. Crowdfunding edo mikromezenasgoa, gaztelaniaz, finantzaketa kolektiboko sare bat da, normalean online, dohaintza ekonomikoen edo bestelakoen bidez, proiektu jakin bat finantzatzea lortzen duena sarien truke, partaidetza altruisten truke.

Proiektuaren diru-sarrera bakoitzaren partaidetzaren portzentajea hurrengoa izango da:

- %80a orgen salmentarekin lortuko dugu; orga bakoitzak prezio finko bat izango du: 160€
- %20a aurrera eramango dugun *crowdfunding* kanpainaren bitartez lortuko dugu: gure proiektuan esperantzak dituen enpresa batek edo partikular batek dirua emango digu modu altruista batean.



© MARTÍN MEDA